



TOKIKO GOBERNU BATZARRA

2025.09.23

Alkatea:
Angel Martinez de Rituerto Arregui

Bertaratutako zinegotziak:
Ander Figuerido Zubiria
Cristina Pelaez Errazquin
Aitor Aguirresarobe Murgui

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko irailaren hogeita hiruan, 09:00etan, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

Ez dira bertaratu:
Miren Yosune Sanz Vidal
Goiuri Eceiza Arandia

Udal idazkaria:
Sara Berasategui Fuertes

Kontu-hartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

1. Akta hau onartzea:

2025eko uztailaren 8koa.

2. Onartzea, gizarte zerbitzuen sailerako praktiketako hitzarmena sinatzea.

3. Onartzea HABEren eta Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiaren arteko lankidetza-hitzarmena, azken hori erakunde laguntzaile izan dadin A1eko, A2ko eta C1eko ikasleei dirulaguntzak emateko prozesuan, 2025-2026 ikasturtean.

4. «18 Apatia Erreka» esparruko «18.1 (Tolosa)-Ibarrako Lurrak» azpiesparruko urbanizazio-proiektua. Hasierako onespena.

5. Dekretu hauen berri ematea:

2025/1845 Dekretua: 2025/37 faktura zerrenda.

2025/1844 Dekretua: 2025/38 faktura zerrenda.

2025/1854 Dekretua: 2025/39 faktura zerrenda.

2025/1886 Dekretua: 2025/40 faktura zerrenda.

2025/1885 Dekretua: 2025/41 faktura zerrenda.



2025/1884 Dekretua: 2025/42 faktura zerrenda.

2025/1949 Dekretua: 2025/43 faktura zerrenda.

2025/1941 Dekretua: 2025/44 faktura zerrenda.

2025/1966 Dekretua: 2025/45 faktura zerrenda.

2025/2002 Dekretua: 2025/46 faktura zerrenda.

2025/2005 Dekretua: 2025/47 faktura zerrenda.

2025/2069 Dekretua: 2025/48 faktura zerrenda.

2025/2068 Dekretua: 2025/49 faktura zerrenda.

2025/2067 Dekretua: 2025/50 faktura zerrenda.

2025/2100 Dekretua: 2025/51 faktura zerrenda.

2025/2101 Dekretua: 2025/52 faktura zerrenda.

2025/2172 Dekretua: 2025/54 faktura zerrenda.

2025/2171 Dekretua: 2025/55 faktura zerrenda.

2025/2243 Dekretua: 2025/56 faktura zerrenda.

2025/2242 Dekretua: 2025/57 faktura zerrenda.

2025/2241 Dekretua: 2025/58 faktura zerrenda.

2024/1933 Dekretua: 2025/59 faktura zerrenda.

2025/982 Dekretua: 2025/60 faktura zerrenda.

2025/2281 Dekretua: 2025/61 faktura zerrenda.

2025/2280 Dekretua: 2025/62 faktura zerrenda.

ESKU41c3d6fe-2836-4f46-988e-20dd65f2c837



**2025/2186 Dekretua: 2025/63 faktura
zerrenda.**

**2024/1933 Dekretua: 2025/64 faktura
zerrenda.**

**2025/2279 Dekretua: 2025/65 faktura
zerrenda.**

**2025/2278 Dekretua: 2025/66 faktura
zerrenda.**

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2025EKO UZTAILAREN 8KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako aktak aztertu dituzte.

Aho batez onartu dituzte.

2. ONARTZEA, GIZARTE ZERBITZUEN SAILERAKO PRAKTIKETAKO HITZARMENA SINATZEA.

I K U S I R I K

Lehena.- Euskal Herriko Unibertsitateak, Gizarte Langintzako graduiko ikasle batek Tolosako udalean praktikak egiteko proposamena luzatu du. Praktikaldiaren ezaugarriak hauek dira:

- Praktikaldia Gizarte zerbitzuak eta osasuna sailean egingo ditu.
- Praktikaldiaren epea 2025eko urriaren 13tik 2026ko martxoaren 27ra arte izango da.
- Ikaslearen tutorea Ainara Irazusta Zubeldia izango da.
- Unibertsitateak proposatutako ikaslea Naiara Eizaguirre Campo da.

Bigarrena.- Horretarako, Lankidetzak hitzarmen bat sinatzeko proposamena egin dute.

K O N T U A N H A R T U R I K

Lehena.- 592/2014 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, unibertsitate-ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituenak.



Bigarrena.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa erregulatzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legeko VI. kapitulua, hitzarmenak erregulatzen dituena.

Hirugarrena.- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespena ematea: Udalbatza. Bestaldetik, Tolosako Alkatetzak, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 dekretuaren bitartez, lankidetzaz-hitzarmenak onartzeko ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzea erabaki zuen. Horiek horrela, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

Lehena.- Euskal Herriko Unibertsitateak eta Tolosako udalak, udalean praktikak egiteko Lankidetzaz hitzarmena sinatzea, honako klausulen arabera:

KLAUSULAK

“Lehenengoa.– Xedea.

Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmen honen xedea da UPV/EHUko ikasleek aipatutako erakunde laguntzailean curriculum praktikak egin ditzaten baldintzak arautzea, unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen uztailaren 11ko 592/2014 Errege Dekretuan eta Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUko Arautegian ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.– Prestakuntza proiektuaren lekua, garapena eta ebaluazioa.

Hitzarmen honi erantsiko zaion II. eranskinean zehaztuko da non egingo diren praktikak.

Iraupena eta ordutegiak ikastegiaren eta erakundearen artean adostuko dira, curriculumaren kanpo praktikaren irakasgaiaren ezaugarriak eta erakundearen ahalatasuna kontuan hartuta, praktika horrek haren jarduera arruntan eragin txikiena izan dezan.

Prestakuntza proiektuak honako atal hauek izango ditu gutxienez:

- a) Erakundearen datuak.
- b) Tituluaren datuak.
- c) Erakundeko instruktorea.



- d) Tutore akademikoa.
- e) Oinarrizko gaitasunak, gaitasun generikoak eta espezifikoak.
- f) Zehaztutako gaitasunekin zerikusia duten ikaskuntza emaitzak.
- g) Ikasleek egin beharreko jarduerak eta zereginak (praktiken zentroan eta unibertsitate ikastegian).

Hirugarrena.– Erakunde laguntzailearen eta ikaslearen arteko harremana.

1.– Prestakuntza jarduerak direnez, kanpoko praktika akademikoek ez dute lan harreman bati dagokion inolako betebeharririk izango, eta ezin izango dira erabili ere lanpostu bateko lan arautuaren ordezkotzat gisa.

2.– Halaber, ikasketak amaitu eta gero, ikaslea erakunde laguntzailearen plantillan sartzen bada, praktiken denbora ez da zenbatuko antzinatasun ondorioetarako, eta probaldia ez da salbuetsiko, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan beste zerbait zehaztuta egon ezean.

Laugarrena.– Praktikako instruktorea.

1.– Erakunde laguntzaileak instruktore bat esleituko dio ikasle bakoitzari, eta hark antolatuko ditu prestakuntza jarduerak, ikaslearen tutorearekin batera, eta praktikaren garapenaren berri emango dio tutoreari, prestakuntza proiektua betetzeari begira.

2.– Erakunde laguntzaileak izendatuko duen instruktorea erakunde horri lotutako pertsona bat izango da, eta, eskarmentu profesionala ez ezik, tutoretza lan egokia egiteko ezagutzak ere izango ditu. Instruktorea eta unibertsitatearen tutoretza lana egingo duen pertsona ez dira bat eta bera izango.

3.– Instruktoreak Praktiken Programako arduradunaren onespena izan beharko du, eta venia docendiren aitortpena suposatuko du, zeina gauzatuko baita Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzeko UPV/EHUko Arautegiak ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena.- Instruktorearen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Honako eskubide hauek izango ditu erakunde laguntzaileko instruktoreak:

- a) Laguntzaile gisa eginiko lana aitortua izatea, aurreko klausularen 3. zenbakian ezarritako baldintzetan.
- b) Kanpoko praktikak arautzen dituen arautegiari buruzko informazioa jasotzea, baita prestakuntza proiektuari eta hura aurrera eramateko baldintzei buruzkoa ere.
- c) Unibertsitatara jo ahal izatea, bere eginkizunak betetzeko behar duen informazio eta laguntza eske.



2.– Era berean, betebeharrak hauek izango ditu:

- a) Ikasleari harrera egitea, eta egin beharreko jarduerak antolatzea, prestakuntza proiektuaren arabera.
- b) Ikaslearen jarduerak gainbegiratzea eta praktika orientatzea eta kontrolatzea, elkarrekiko errespetuan eta ikaskuntzarekiko konpromisoan oinarritutako harreman baten bitartez.
- c) Ikasleari erakundearen antolakuntza eta funtzionamenduaren berri eman beharko dio, baita intereseko araudia ezagutarazi ere; batez ere, segurtasunaren eta lan arriskuen arlokoa.
- d) Unibertsitateko tutorearekin koordinatzea, prestakuntza proiektuan ezarritako jarduerak egiteko eta horren garapenean sor daitezkeen gorabeherak jakinarazteko eta konpontzeko, bai eta azterketak egiteko baimenak kontrolatzeko ere.
- e) Ezarritako ebaluazio prozesuan parte hartzea. Ikastegiak horren berri emango dio.
- f) Ikasleari praktika egiteko behar duen prestakuntza osagarria ematea.
- g) Ikasleari praktikarako behar dituen ezinbesteko baliabide materialak ematea.
- h) Ikasleari erraztasunak eta adorea ematea, berrikuntzarekin, hobekuntzarekin eta ekintzailetzarekin loturiko proposamenak egin ditzan.
- i) UPV/EHUko tutoreari erakundearekiko harremanak erraztea, bere eginkizunak ondo bete ditzan.
- j) Instrukture lanaren bidez ikasleari buruzko informazioa eskuratzen badu, informazio hori isilpean gordetzea.
- k) Erakundean dagoen bitartean, ikasleari laguntzea jardunean sortzen zaizkion arazoak konpontzeko edo zalantza profesionalak argitzeko.

Seigarrena.– Ikasleen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Kanpoko praktikak egitean, ikasleak honako eskubide hauek izango ditu:

- a) Praktikek irauten duten bitartean, unibertsitateko irakasle baten eta praktika bideratzen ari den enpresa, instituzio edo erakundean jardunean ari den profesional baten tutoretzarako eskubidea.
- b) Ebaluaziorako eskubidea, unibertsitateak zehazturiko irizpideen arabera.
- c) Praktikak egin dituen erakunde laguntzaileak egindako txostena eskuratzeko eskubidea. Bertan, berriaz aipatuko dira egindako jarduerak, iraupena eta, hala badagokio, errendimendua, unibertsitateak ezarritako prozedurari jarraiki.
- d) Hala zehaztu den kasuetan, ikasketetarako laguntza gisa finkatutako ekarpen ekonomikoa jasotzeko eskubidea.



e) Jabetza intelektual eta industrialerako eskubidea, arloan arloko legediak arautzen dituen baldintzetan, ikasleak eskubide horren lagapen edo transmisiorako dokumentua sinatu duen kasuetan izan ezik.

f) Segurtasun eta lan arriskuen prebentziorako araudiaren gaineko informazioa jasotzeko eskubidea, erakunde laguntzaileak eman beharko duena.

g) Bere jarduera akademikoa, prestakuntza lana eta ordezkaritza nahiz partaidetza betebeharrak betetzeko eskubidea, aldezturik erakunde laguntzaileari jakinarazita.

h) Ezgaitasuna duten ikasleen kasuetan, praktikak besteen baldintza berberetan egiteko eta tutoretza, informazioa eta ebaluazioa jasotzeko eskubidea.

i) Ezgaitasunak dituzten ikasleen kasuan, praktikak ezgaitasunari lotutako edo hortik eratorritako jardueretara eta egoera pertsonalera egokitzeko eskubidea.

j) Indarrean den araudian eta unibertsitateak eta erakunde laguntzaileak izenpetutako hezkuntza lankidetzarako hitzarmenetan aurreikusitako beste eskubide guztiak.

2.– Era berean, kanpoko praktika akademikoak egin bitartean, ikasleek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Kanpoko praktiken arloan indarrean dagoen araudia, unibertsitateak zehaztu zuena, betetzea.

b) Praktiken gaineko prestakuntza proiektua ezagutzea eta betetzea, erakunde laguntzaileak izendatutako instruktorearen oharrei jarraiki eta unibertsitateko tutorearen zaintzapean.

c) Unibertsitateko tutorearekin harremana izatea, praktika egin bitartean, eta praktikarekin zerikusia duen edozein gorabehera jakinaraztea, bai eta eskatzen zaizkion agiriak entregatzea ere.

d) Erakunde laguntzailean hitzartutako egunean hastea, hezkuntza proiektuan aurreikusitako ordutegia betetzea, praktikaren arabera jantziak eta higiena mantentzea, eta erakundearen funtzionamendu arauak eta segurtasun eta lan arriskuen prebentziorako arauak errespetatzea.

e) Praktiketako instalazioen eta bertako pertsonen segurtasuna bermatuko duen jarrera erakustea.

f) Prestakuntza proiektua garatzea eta erakunde laguntzailearekin hitzartutako jarduerak egoki betetzea, proiektuan ezarritako lan ildoan arabera.

g) Prestakuntza proiektuan aurreikusitako dokumentuak eta/edo txostenak egitea eta entregatzea.



h) Konfidentzialtasuna bermatzea, erakunde laguntzailearen barne informazioari dagokionez, eta sekretu profesionala gordetzea. Beraz, ez du hitzartutako praktikarik lor dezakeen daturik jakinaraziko edo inoren esku utziko, ez praktikak hasi aurretik, ez praktikak egin bitartean ezta amaitu ondoren ere.

i) Proposatutako argibideak eta segurtasun neurriak betetzea baliabide informatikoak erabiltzean, informazioa eskuratzean eta dokumentuak zaintzean, baita instalazioen segurtasun neurriak bete behar direnean ere.

j) Une oro, erakunde laguntzailearen politikarekiko errespetuzko jarrera erakustea, partaide den unibertsitatearen izen ona zainduta.

k) Indarrean dagoen araudian eta unibertsitateak erakunde laguntzailearekin sinatutako hezkuntza lankidetzarako hitzarmenetan aurreikusitako beste edozein betebeharrak.

3.– Aurreko atalean aipatu diren betebeharrak bete ezean, praktikak bertan behera utzi ahal izango dira. Horretarako, UPV/EHUK edo erakunde laguntzaileak Praktiketako Arautegiak ezarritako Jarraipen Batzordeari horren berri emango dio, eta horrek kasuan kasuko praktika aurretik eteteari buruzko erabakia hartu beharko du, 10 eguneko epean gehienez.

4.– Ikasleak praktikara ez joateko aukera izango du azterketak egiteko, hiru egun lehenago instruktoreari dagokion justifikazioa emanez gero. Arrazoi akademikoengatik edo beste era bateko arrazoiengatik joan ezean, ahalik eta lasterren emango die horren berri tutoreari eta begiraleari, eta tutorearen baimena eskuratu beharko du.

Zazpigarrena.– Instalazioak eta baliabideak.

Erakunde laguntzaileak bere instalazioen eta baliabideen erabilera bermatuko du praktikak egiteko, eta zenbat ikasle har ditzakeen zehaztuko du.

Zortzigarrena.– Erantzukizunak eta aseguruak.

1.– UPV/EHUK erantzukizun zibileko poliza bat du, ikasleek praktikak egin bitartean sor ditzaketen kalteak estaltzeko.

2.– Erakundeko instruktoreak praktiken jarduera programan zehaztuta ez dagoen agindu edo jarraibideren bat eman, eta horren ondorioz kalteak gertatzen badira, haien erantzukizuna ez da, inola ere, unibertsitatearena izango, ez eta praktiketan ari den ikaslearena ere.

3.– Ikasketa ofizial batean matrikulatuta dauden eta 28 urtetik behera dituzten ikasleek eskola aseguru bat izango dute, espainiarrak izan edo bizileku baimena duten atzeritarrak edo europarrak izan. Era berean, UPV/EHUK istripuetako eta laguntza sanitarioko EHU Ikasle Asegurua du kontratatuta, eta UPV/EHUn matrikulatutako ikasle guztiak estaltzen ditu estatuko lurraldean.

4.– Atzerrian kanpoko praktikak egiteko, IBILI poliza edo gutxienez horren estaldura bera duen poliza bat izenpetu beharko da.



5.- Mugikortasun edo antzeko programa baten bidez atzerriko unibertsitateetatik UPV/EHUrak datozen eta kanpoko praktika akademikoak egiten dituzten ikasleek IBILI poliza edo gutxienez horren estaldura bera duen poliza bat izenpetu beharko dute, eta erantzukizun zibileko beste poliza bat, ikasleek praktikak egitean sor ditzaketen kalteak estaltzeko.

Bederatzigarrena.- Poltsa edo laguntza eta zerga eta kotizazio betebeharrak.

Oro har, ikasleek ez dute inolako kopururik jasoko praktikak egiteagatik. Hala ere, praktikak egitearen ondorioz, ikasleak ikasketetan laguntzeko poltsa edo laguntza bat ordaindu behar bazaio, erakunde laguntzaileak egin beharko du ordainketa eta zerga betebeharrak indarrean dagoen legediaren arabera bete. Gizarte Segurantzaren kotizatzeko betebeharrak egonez gero, UPV/EHUK kudeatu eta ordainduko ditu.

Hamargarrena.- Datuak pertsonalen babestea.

Hitzarmen honen sinadurak baimena ematen du sinatu dutenen datu pertsonalak lagatzeko eta erabiltzeko hitzarmen honen helburuetarako soilik, kontuan izanik 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak eta Eskubide Digitalak babesteari buruzkoa, eta 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, 95/46/CE Zuzentaraua indargabetu ere egiten duena (datuak babesteko erregelamendu orokorra). Datuak ezin izango dira inolaz ere erabili hitzarmenean eta, hala badagokio, dagokion eranskinean jasota ez dauden helburuetarako. Datu pertsonalak ez dira inoren esku utziko, hitzarmenaren helburuen arreta, garapen, kontrol eta betetze jardueretarako ez bada, eta indarrean dagoen legediak ezarritako kasuetan izan ezik. Datuen titularrek eskubidea izango dute datuetan sarbidea izateko, zuzentzeko, ezabatze eta eramateko, baita haien tratamendua mugatzeko eta horren aurka egiteko ere, eta haien datuen tratamendu automatizatuan oinarritutako erabakien menpe ez egotea ere, hala dagokionean, Euskal Herriko Unibertsitatearen aurrean, Datuen Babeserako Delegatuari zuzenduz. Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa (Bizkaia) edo dpd@ehu.eus helbidean. Gainera, aldeek konpromisoa hartzen dute beharrezkoak diren neurri tekniko eta antolakuntza arlokoak hartzeko, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta aldatu, galdu edo baimenik gabe erabiliak izan ez daitezen, aintzat haturik unean-unean teknologia, gordetako datuen ezaugarriak eta baita arriskuak ere, giza jardueratik edo ingurune fisiko naturaletik eratorritakoak.

Hamaikagarrena.- UPV/EHUrak beste konpromiso batzuk.

1.- Arestian aipatutakoak albo batera utzi gabe, UPV/EHUK honako konpromiso hauek hartuko ditu parte hartzen duten ikasleekin:

a) Hitzarmen honen baldintzak jakinaraztera, eragiten dizkieten alderdi guztiei dagokienez.



b) Ikasleek hitzarmen honetan eta araudi aplikagarrian ezarritako betebeharrak bere gain hartzen dituztela zaintzea.

c) Ikasleek beren datuak berariaz lagatzea, aurreko klausulan aurreikusitako ondorioetarako.

2.– UPV/EHUK sinatutako dokumentuaren kopia bat emango dio erakunde laguntzaileari.

Hamabigarrena.– Jarraipen Batzordea.

1.– Jarraipen Batzorde bat eratuko da, tituluaz arduratzen diren ikastegiko bi ordezkari eta erakunde laguntzailearen beste bi kidek osatuta. Batzorde horren egitekoa izango da praktikak egitean edo hitzarmena betetzean sor daitezken gorabeherei buruzko erabakiak hartzea.

2.– Batzordea eratu ondoren, sinatzaileak batzordeburu izango dira txandaka, eta UPV/EHUri egokituko zaio hasierako txanda.

Hamahirugarrena.– Hitzarmenaren indarraldia.

1.– Hitzarmen honek lau urteko indarraldia izango du sinatzen den egunetik aurrera, non eta alde sinatzaileetako batek hura salatzen ez badu, hemen hitzartutakoak eraginik ez izatea nahi den ikasturtearen aurreko ikasturteko martxoan. Hala ere, aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.

2.– Hitzarmenaren salaketa idatziz egin beharko da, eta ez du eraginik izango hura egiteko unean egiten ari diren praktketan, praktikak lehenago eteteari buruz Bosgarren eta Seigarren klausuletan ezarritakoa eragotzi gabe. Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, aldeek hezkuntza lankidetzarako hitzarmen hau sinatzen dute, bi aletan eta ondorio bakarrerako, idazpuruan adierazitako tokian eta datan.”

Bigarrena.- . Praktikaldiaren ezaugarriak hauek izango dira:

- Praktikaldia Gizarte zerbitzuak eta osasuna sailean egingo ditu.
- Praktikaldiaren epea 2025eko urriaren 13tik 2026ko martxoaren 27ra arte izango da.
- Ikaslearen tutorea Ainara Irazusta Zubeldia izango da.
- Unibertsitateak proposatutako ikaslea Naiara Eizaguirre Campo da.

Hirugarrena- Akordioa Euskal Herriko Unibertsitateari jakinaraztea.



3. ONARTZEA HABEREN ETA TOLOSAKO AITZOL UDAL EUSKALTEGIAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, AZKEN HORI ERAKUNDE LAGUNTZAILE IZAN DADIN A1EKO, A2KO ETA C1EKO IKASLEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZESUAN, 2025-2026 IKASTURTEAN.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udaleko Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatuak, 2025eko irailaren 11ko probidentzia baten bidez, ebatzi duela espediente bat irekitzea, HABErekin hitzarmena sinatzeko, Tolosako Aitzol Udal Euskaltegia erakunde laguntzaile izan dadin euskarazko A1, A2 eta C1 maila xede duten ikasleen dirulaguntzak kudeatzeko.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2025eko irailaren 11n egindako txostenean, hitzarmena sinatzea proposatu zuela. Gogora ekarri zuen Udalak zer eskumen dituen euskararen ezagutza sustatzeko, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 7.2. artikuluan finkatuak: «*Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena*». Hain justu ere, 2/2016 Legeak berariaz aurreikusten du hitzarmenak egitea euskararen arloko eskumenak gauzatzeko (7.5. artikulua). Kasu honetan, hitzarmenaren xedea da euskara-ikasleentzako dirulaguntza-sistema berria jartzea martxan, hiru ikasmailatan: A1, A2 eta C1. Ikasleentzat onuragarri den heinean, hitzarmena sinatzea proposatu zuen.

BIGARRENA.- Txosten juridikoa egin zuela Idazkaritza Saileko teknikariak 2025eko irailaren 11n, eta proposamenaren aldeko iritzia eman zuela, baldintza batekin: hitzarmenean adieraztea zinegotzi delegatuak udal-idazkariak lagunduta sinatu duela.

HIRUGARRENA.- Kontu-hartzailatza Saileko teknikariak, 2025eko irailaren 18an, hitzarmena sinatzearen aldeko txostena egin zuela, betiere baldintza batekin: 2025eko ordenantza fiskalak hitzarmen honen edukira egokitzea. Prozedura hori tramitatzen ari da (2025ORFI0020).

LAUGARRENA.- Hitzarmena egiteko eskumena Alkatearena dela, kontuan hartuta zer zehazten duen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 artikuluan. Hala ere, Tolosako alkateak, 2023ko uztailaren 3an, 2023/1707 Alkatetza Dekretuaren bidez, erabaki zuen zenbait ahalmen Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, eta tartean da hitzarmenak onestea, betiere 9/2017 eta 38/2003 legeen aplikazio-eremutik kanpokoak badira. Beraz, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio ebaztea.



Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- HABErekin hitzarmen hau egitea, Aitzol Udal Euskaltegia entitate laguntzaile izan dadin A1eko, A2ko eta C1eko euskara-ikasleen dirulaguntzak bideratzeko:

HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEAREN (HABE) ETA TOLOSAKO AITZOL UDAL-EUSKALTEGIAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, AZKEN HORI ERAKUNDE LAGUNTZAILE IZAN DADIN A1EKO, A2KO ETA C1EKO IKASLEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZESUAN, 2025-2026 IKASTURTEAN.

BILDU DIRA:

Ibone Bengoetxea Otaolea anderea, Jaurilaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, HABEko presidente gisa.

Miren Garbiñe Marzol Ormazabal anderea, Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiaren ordezkaria, Tolosako udal-idazkari Sara Berasategui Fuertesek lagunduta.

PARTE HARTU DUTE:

Ibone Bengoetxea Otaolea andereak, HABEren izenean eta hura ordezkatzuz, urtarilaren 10eko 14/2017 Dekretuak xedatutakoaren arabera.

Bestetik, Garbiñe Marzol Ormazabal andereak, Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiaren legeko ordezkari gisa, HABEko euskaltegien erregistroan ageri denez.

Alderdi biek hitzarmen hau izenpetzeko eskumena eta gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, hori dela eta, honako hau

ADIERAZI DUTE:

1.– HABEk euskara sustatzeko ekintzak eta programak bultzatzen ditu, euskara ikasteko ahalegina egiten duten pertsonen laguntzeko neurriak jarritz.



2.– HABEko zuzendariaren 2025eko irailaren 3ko Ebazpenaren bidez, helduen euskalduntzea sustatzeko xedez 2025-2026 ikasturterako dirulaguntzen deialdia onetsi zen, zeinaren xedea baita bultzatzea A1, A2 eta C1 helburu-maila duten ikasleak euskara ikastera. Prozeduraren organo instrukziogilea eta kudeatzailea HABEko ikuskatzailetza arloa izango da, eta ebazteko arduraduna, HABEko zuzendaria.

3.– Deialdi horretako zazpigarren oinarriak erakunde laguntzaileekin aritzeko aukera aurreikusten du, deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona matrikulatuen eskaerak kudeatu eta izapidetzeko.

4.– Erakunde laguntzaileek kudeatu eta izapidetuko dituzte ikasle onuradunek egindako eskaerak.

5.– Erakunde laguntzaileek neurriak hartuko dituzte, dirulaguntzaren onuradunek dirulaguntzak emateko baldintzak betetzen dituztela bermatzeko.

HORREGATIK GUZTIAGATIK, Dirulaguntzei buruzko 20/2023 Legearen 12. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz eta HABEko zuzendari nagusiaren 2025eko abuztuaren 18ko Ebazpenaren zazpigarren oinarriari jarraikiz, bi aldeek **HITZARMEN HAU SINATZEA ADOSTU DUTE**, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Hitzarmen honen xedea da HABEko zuzendariaren eta Tolosako Aitzol Udal Euskaltegia erakunde laguntzailearen arteko lankidetzaz bidea ezartzea, A1, A2 eta C1 helburu-maila duten ikasleek ikastaroetan parte hartzeagatik, 2025-2026 ikasturtean jasoko dituzten dirulaguntzak kudeatu eta izapidetzeko.

Lankidetzaz 2025-2026 ikasturterako da eta hitzarmena indarrean dagoen bitartean eman daitezkeen laguntzak kudeatzeko.

Bigarrena.– Erakunde laguntzailearen betebeharrak

1) Erakunde laguntzailearen eginkizuna izango da HABEko zuzendariaren 2025eko abuztuaren 18ko Ebazpenaren bidez ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona matrikulatuen eskaerak kudeatu eta izapidetzea (Q87 aplikazioaren bidez) eta HABEko zuzendariaren kontura jardutea.

2) Erakunde laguntzaileak hiru epe izango ditu HABEri dirulaguntza ezarriko zaien ikasleen eskari guztien zerrenda ziurtatua eta agiri osagarriak aurkezteko. Horretarako, erakunde laguntzaileak Q87 aplikazio informatikoan igo beharko ditu datuak eta agiriak. Hiru epe-muga hauek izango dira (HABEko zuzendari nagusiaren 2025eko abuztuaren 18ko Ebazpenaren zazpigarren oinarriaren laugarren apartatuaren arabera):



- 2025eko azaroaren 14a (dirulaguntzaren esleipen-ebazpena abenduaren 19a baino lehen gauzatu ahal izateko).
- 2026ko apirilaren 17a (dirulaguntzaren esleipen-ebazpena maiatzaren 22a baino lehen gauzatu ahal izateko).
- 2026ko irailaren 15a (dirulaguntzaren esleipen-ebazpena urriaren 23a baino lehen gauzatu ahal izateko).

3) Matrikula-prezioaren zenbatekoa orduko 0,60 euro baino baxuagoa denean, erakunde laguntzailearen eginkizuna izango da kasuan kasuko inguruabar pertsonalak ziurtatzea.

4) Erakunde laguntzaileak eskaria egin duen ikasleak lehendik deialdi honetan oinarrituta beste eskaerarik egin ez duela egiaztatuko du.

5) Trebetasunen batean aurrerapen bat lortu duten ikasleen zerrenda emango dio HABEri euskaltegiko zuzendariak bi epetan:

- 2026ko uztailaren 17rako, 2025eko urritik 2026ko ekainera arte aritutako ikasleen zerrenda.
- 2026ko urriaren 16rako, 2026ko uztailetik irailera arte aritutako ikasleen zerrenda.

Hirugarrena.– Dirulaguntza ikasleari emango zaio, salbu matrikula egitean ordainduko duen orduko kopurua: 0,60 euro. Horretaz gain, ikasleak matrikulatzeko unean ikastaro bera egiteagatik beste dirulaguntzaren bat jasotzen badu, HABEren dirulaguntza gutxitu egingo da kopuru berean. Ikaslearen matrikularen prezioaren gainerako zatia, hau da, ikaslearentzako dirulaguntza, erakunde laguntzailearen bidez kudeatuko da eta erakunde laguntzaileak jasoko du ikastegi bakoitzean HABEko zuzendariak 2025eko abuztuaren 18an onartutako Ebazpenaren 7.4 oinarriaren, bederatzigarren oinarriaren eta hamargarren oinarriaren ildotik.

Laugarrena.– Hiru euro ezarriko dira konpentsazio ekonomiko gisa erakunde laguntzailearen alde, kudeatutako eta onartutako matrikula bakoitzeko.

Bosgarrena.– Aldeek datu pertsonalen babesari buruzko araudia bete behar dute, onuradunei buruz lortutako datuei dagokienez, eta haiek eman beharreko baimena eman behar diete datuok erabiltzeko.

Seigarrena.– Hitzarmen honek urtebete iraungo du sinatzen den egunetik aurrera, eta ez da modu automatikoan luzatuko.

Hitzarmen honen xedapenak guztiz edo partez aldatu ahalko dira, aldeek hala adosten badute; halaber, aldeetarik edozeinek salatu ahalko du hitzarmena, hiru hilabete lehenago jakinarazita, eta hala gertatuz gero, aldeek hitzematen dute konpromisoei eutsiko dietela onuradunei emaniko laguntzen aldi guztia bukatu arte.



Zazpigarrena.– Hitzarmen hau suntsiarazteko kausa dira hitzarmenean ezarritako klausulak ez betetzea, eta orobat hitzarmenaren izaerari dagokion beste edozein kausa ere, indarrean den legerian jasota badago.

Zortzigarrena.– Araubide juridikoa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa dauka, eta araubide juridiko-administratiboa erabiliko da hura interpretatu eta garatzeko; izenpetzaileek berariaz men egiten diote administrazio auzietarako jurisdikzioari.

Hitzarmen honetan aurreikusita ez dauden gaietan, bi lege hauetan ezarritako xedapenak aplikatuko dira: 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena, eta 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, partaideek honako dokumentu hau izenpetu dute digitalki, sinaduran ageri den datan.

Erakunde laguntzailearen ordezkaria
Miren Garbiñe Marzol Ormazabal

HABEko presidentea
Ibone Bengoetxea Otaolea

Nire aurrean,

Sara Berasategui Fuertes
Tolosako Udaleko idazkaria

BIGARRENA.- Hitzarmenaren testua argitaratzea Tolosako Udalaren gardentasun-atarian eta udaletxeko iragarki-taulan, bat etorrira 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, 8.1 artikulua b) atalean xedaturikoarekin.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, Euskara eta Hezkuntza Sailari, eta Kontu-hartzaitza Sailari.

**4. «18 APATTA ERREKA» ESPARRUKO «18.1 (TOLOSA)-IBARRAKO LURRAK» AZPI-
ESPARRUKO URBANIZAZIO-PROEKTUA. HASIERAKO ONESPENA.**

IKUSIRIK

LEHENA.- 2022H1220002 espedienteari (urbanizazio-proiektua) dagozkion honako aurrekariak:

Dokumentua	Data/Zk.	Oharrak
Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra SA enpresak, Maria Jesus Celaya Eguiguren ordezkariaren bitartez, aurkeztutako urbanizazio-proiektua.	2022/05/12 (5622, 5624, 5627 eta 5628 sarrera zk.).	Hasierako onespenerako dokumentazioaren aurkezpena.
Ingurumen eta landa eremuko udal teknikariaren txostena (IM20230026).	2023/03/08	Kontrako txostena.
Udaltzainburuaren txostena.	2023/03/21	Aldeko txostena, baldintzekin.
GUREAK zerbitzuko lorenzaintzako teknikariak egindako txostena.	2022/03/24	Aldeko txostena, proposamenekin.
Hirigintza saileko ingeniari elektrikoaren txostena (AM23015).	2023/04/11	Behin behineko onespena ematearen aldeko txostena.
Tolosaldeko Mankomunitatearen txostena.	2022/11/09	Aldeko txostena, proposamenekin.
Ur Kontsortzioaren txosten teknikoa.	2022/12/02	Aldeko txostena, Gomendio eta gidalerro orokorrekin.
NORTEGASen txostena.	2023/04/13	Aldeko txostena, baldintzekin.
Udal teknikariaren txostena (AA23020).	2023/08/30	Kontrako txostena
Errekerimendua Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra SA enpresari.	2023/09/04 (2125 irteera zk.)	Errekerimendua hilabeteko epean zuzenketak aurkezteko.
Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra SA enpresak, Maria Jesus Celaya Eguiguren ordezkariaren bitartez, aurkeztutako urbanizazio-proiektua.	2023/10/04 (12383 sarrera zk.)	Errekerimenduari erantzunez aurkeztutako dokumentazioa.
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zundaritzaren jakinarazpena.	2024/03/27 (4476 sarrera zk.)	Lurzoruaren kalitatearen adierazpenaren prozeduraren jasieraren jakinaraztea.
Udal teknikariaren txostena	2024/10/21	Aldeko txostena, baldintzekin.

ESKU41c3d6fe-2836-4f46-988e-20dd65f2c837



(IM24030).

Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra SA enpresak, Maria Jesus Celaya Eguiguren ordezkariaren bitartez, aurkeztutako urbanizazio-proiektua.	2024/12/23 (15890, 15892, 15894 sarrera zk.)	Errekerimenduari erantzunez aurkeztutako dokumentazioa.
Ur Kontsortzioaren txosten teknikoa.	2025/03/18	Aldeko txostena, Gomendio eta gidalerro orokorrekin.
Udal teknikariaren txostena (AMU25001).	2025/08/21	Aldeko txostena, baldintzekin.

BIGARRENA.- 2021H1300002 espedienteari (ingurumen-prozedura) dagozkion honako aurrekariak:

Dokumentua	Data/Zk.	Oharrak
Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra SA enpresak, Idoia Bastida Segues ordezkariaren bitartez, aurkeztutako urbanizazio- proiektua.	2021/06/25 (6325 sarrera zk.).	Hasierako onespenerako dokumentazioaren aurkeztepena.
Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra SA enpresak, Maria Jesus Celaya Eguiguren ordezkariaren bitartez, aurkeztutako urbanizazio-proiektua.	2021/07/21 (145 sarrera zk.)	Dok. Osagarria
Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra SA enpresak, Maria Jesus Celaya Eguiguren ordezkariaren bitartez, aurkeztutako urbanizazio-proiektua.	2021/07/22 (7171, 7172, 7174, sarrera zk.)	Dok. osagarria
Natura-ingurunean eragin daitezkeen kalteei buruzko txostenaren eskaera elektronikoa	2021/07/23 (2021RTE00320122) 2021/09/06 (2021RTE00750853)	
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzaren errekerimendua eskaera zuzentzeko.	2021/10/20 (9265 sarrera zk.)	
Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra SA enpresak, Maria Jesus Celaya Eguiguren ordezkariaren	2021/10/22 (9349 sarrera zk.)	



bitartez, Eusko Jaurlaritzak
egindako errekerimenduan
eskatzen den dokumentua.

Eusko Jaurlaritzako
Ingurumen Kalitatearen eta
Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritzaren ebazpena
(irismen-dokumentua).

2021/12/09
(10876 sarrera zk.)

Irismen-dokumentuaren
jakinarazpena interesdunari.
Ur Agentziaren txostena.

2022/05/06
(1381 irteera zk.)
2022/06/21 (7335 sarrera zk.)

Txosten zuzentzailea.

Konfederazio
hidrografikoaren txostena.

2022/06/21
(7336 sarrera zk.)
2022/09/30 (10298 sarrera
zk.)

Tolosaldeko Apattaerreka
Industria Lurra SA enpresak,
Maria Jesus Celaya
Eguiguren ordezkariaren
bitartez, aurkeztutako
ingurumen inpaktuaren
azterketa.

Udaleko ingurumen eta landa
eremuko teknikariaren
txostena (IM20230025).

2023/03/08

Kontrako txostena.

Udal teknikariaren txostena
(AMU25001).

2025/08/21

Aldeko txostena, baldintzekin.

KONTUAN HARTURIK

LEHENENA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, titularrak baduela gaitasuna administrazio publikoen aurrean jarduteko, eta betetzen dituela baldintzak interesdun izaera onar dakion.

BIGARRENA.- Aplikatu beharreko legeria, besteak beste, honakoek ezartzen dutela:

- Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (2009/03/31 GAO 60 zk.).
- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea.
- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua.
- Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretua.
- Lurzoruari buruzko Legearen testuategia, urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuak onartutako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatzeko eta aplikatzeko Plangintzako Erregelamendua.



- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.
- Gainontzeko indarreko araudi aplikagarria.
- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.
- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.

HIRUGARRENA.- 2025eko abuztuaren 21ean, hirigintzako ingeniariak egindako txostenean (AMU25_001), besteak beste, azterketa teknikoan adierazitakoa zein proposatutako ebazpen-proposamena:

«AZTERKETA TEKNIKO»

TXOSTENAREN HELBURUA:

Txosten honen xedea "18. Apattaerreak" Hirigintza esparruko 18.1 (Tolosa)-Ibarrako lurak 2024ko abenduaren aldaketa" izeneko hiritartze exekuzio-proiektua aztertzean datza. Zehazki, urbanizazio proiektuari egindako zuzenketak aztertu eta horri buruzko informazioa ematea da helburua.

DOKUMENTAZIOAREN AZTERKETA:

2.1. AURRETIK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

1-Betelana ixteko beharrezko koordinazio lanak definitzea, aztertzea eta gauzatzea.

Sustatzaileak dokumentazioa bidali ondoren, betelanaren obra-amaierako dokumentazioa ontzat eta bukatutzat eman zen. Hortaz, betelanaren espediente zuzen amaituta dago.

2-Mugikortasun irizpideak eta proposamenak urbanizazio proiektuan barneratzea ere.

Sustatzaileari eskatu zitzaion gaur egungo bideak, urbanizazioaren esparruan kokatzen direnak, proiektuan barneratzeko eta egokitzeko, eta parkeko aparkalekuaren sarbidea asfaltatzeko.

Proiektuan esaten denez, parkeko plataformaren eta bi bide berrien lur-mugimenduak egitea baino ez da aurreikusi, beste bideei buruz, berriz, dio zehazki:

- Parkeko aparkalekuaren sarbidea:

Bigarren mailako sarbidearen tratamenduari eutsi eta bertatik trafiko astuna saihestu nahian, zorua, asfaltozko aglomeratuaren ordeztu, hormigoiz egitea proposatzen dute: egungo hormigoizko zorua eraitsi, 20 cm-ko lodieran ZA-25 edo hormigoizko birziklatuko RCD azpi base bat jartzea, eta ondoren hormigoizko HF 4.0-ko hormigoizko zoru bat, 20 cm-ko lodieran ekortutako tratamenduarekin, hau da, poligonotik sartzeko bidean proposatu den zoru bera. Proposamen hau egokitzen jartzen da.



- Tolosako Hilerritik Ibarako tunelera jaisten den bidea:

Bide hori, gaur egun hormigonatuta eta egoera egokian dagoela argudiatuta, ez dute horren gaineko jarduketarik aurkeztu. Arrazoinamendua egokia da eta ontzat ematen da.

- Apattan aurretik egindako industriagunetik tunelera doan bide zuzena:

Ez dute gaur egungo bidean jarduketarik aurkeztu.

20 cm-ko ZA-25 zahorrazko zoruarekin egokitzea eskatzea proposatzen da.

3-Zerbitzu-sareen kanalizazioen trazadura eta elementuak lurzoru publikoan kokatzea

Sare elektrikoaren kasuan, ohartarazi da R eta N partzeletan, kalearen tipologia dela-eta, ez dagoela espaloirik, eta, beraz, energia elektrikoa aturreetatik edo galtzadatik igaro behar zen. Galtzadatik ez joateko Iberdrolaren irizpidea trafikoagatik dela kontuan hartuta, aturreetatik proiektatu dute, bertan trafikoa txikiagoa baita. Arazo hori, aurreproiektu elektrikoa izapidetzean, Iberdrolarekin aztertu zutela eta zeuden aukerak ikusita, aukerarik onena proiektatutakoa zela erabaki zutela diote. Aurreproiektu elektrikoa Iberdrolak onartu du eta Iberdrolaren onarpena hori eranskin gisa erantsi dute (18. puntuan adierazten da).

Saneamenduko sareari dagokionez, Q. partzelatik zehar aurreikusitako trazadura aldatu dute eta ez da eremu pribatutik igarotzen. Horrez gain, Gipuzkoako Urakekin kontsultatu da eta ondorengo adierazi dute: *“- 8.3.1 planoan adierazitakoaren arabera, proiektatutako saneamendu-sare orokor berriak lur publikotik eta irisgarritik igarotzen dira.”*

Euri-uren sareari dagokionez, 1. faseko urak Q partzelatik zehar ateratzea proposatzen dute, isurketa hori 2. faseko sarera lotuz gero, bigarren faseko kolektoreen neurriak askoz handiagoak izatea ekarriko lukeela eta, edukiera faltagatik, biribilgunearen azpian dagoen iragazketa-gelaxken tankeak kendu behar izatea ekarriko lukeela argudiatuta.

Halaber, sare osoa isurketa-puntu bakar batean elkartzeak bi hidrozikloi jartzeko beharra sortuko lukeela eta espazio publikoaren azpian ez liratekeela sartuko argudiatzen dute.

M eta L partzeletara ezponda publikotako ura iristen denez euri-uren sareak ur horiek jaso egin behar ditu eta bertara iristeko modu bakarra aipaturiko partzeletatik zehar da.

Telekomunikazio sarea orokorrean espaloietatik doa, Q eta M partzeletan sartzen den arren. 4. eta 7. bideetan espaloia oso txikia denez, kanalizazioak galtzadatik baino aturreetatik joatea egokiagoztat jo dute.

Proposamena ontzat ematen da. Dena den, sareak eremu publikoan kokatzea ezinezkoa izan den zati guztietarako zortasunak sortu beharko dira eta plano batean adierazi.



4-Partzela bakoitzeko ur-emariak denboran zehar mantentzeko ahalmena eta presioak justifikatzea.

Memoriako 5. eranskinean, sarrerako 1. atalean, adierazten da poligonoaren behealdeko presio estatikoa 5,6 kg-koa dela, baina, aldiz, alderik altuenean 4 kg-koa dela, eta azpimarratzen da beheko aldean ez litzatekela arazorik egon behar pabiloietan suteei buruzko araudia betetzeko; izan ere, 5,5 kg-ko presioa eskatzen da sarreran eta 100 l/min-ko emaria (1,67 l/s) BIE bakoitzerako.

Hala ere, goiko aldean presio-baldintza hori ez da betetzen, baina bai emaria (urbanizazioan 33,33 l/s-ko suteak kontuan hartuta egin dira kalkuluak). Baina 2. atalean adierazten den bezala, ez dakigu zer industria mota ezarriko den industrialdean, eta, ondorioz, gerta daiteke ezartzen den industriak BIESen beharrik ez izatea, eta, kasu horretan, 4 kg-ko presioa nahikoa baino gehiago izatea.

Horregatik, jarduera-lizentziak markatu eta justifikatu beharko du araudi hori betetzen dela. Urbanizazio-proiektuak urbanizazioaren suteei buruzko araudia, EOA CPI eta 2017ko Erregelamendua bete behar ditu. Erregelamendu horrek nahitaez bete behar du «Suteen aurkako hornidura-sistemak» UNE 23500:2018 araua, 5. eranskinean justifikatuta dagoen bezala betetzen dena.

Sarearen dimentsionamendurako zenbatetsitako emariei dagokienez, 5. eranskinean justifikatuta daude, 2. atalean.

Beraz, behar bezala justifikatu dute eskakizuna.

5-Kontserbazio erakundeak mantenduko duen argiteria eta Udalek mantendu beharrekoa banatzea.

Kontserbazio Hirigintza Entitateak kudeatuko ditu, besteak beste, industria-inguruneke argiztapen-instalazioak 20 urtez, Plan Berezian zehaztutako moduan. Parkean ez da argiteria sarerik aurreikusi, beraz, proiektuko sarea osoa kontserbazio-erakundeak kudeatuko du.

Mantentze-lanen kostuen estimazioa

Etorkizunean 2 faseak amaitzean udalei dagozkien mantentze-kostuen estimazioa berrikusi eta aldatu dira. Horrela, urteko zenbatekoa 101.646,09 eurokoa da, honela banakatuta:



SUBÁMBITO "18.1 (TOLOSA) - TERRENOS DE IBARRA" DEL POLÍGONO INDUSTRIAL COMARCAL DE APATTAERREKA			
CONCEPTO	SUPERFICIE (m ²)	COSTO ESTIMADO (€/m ²)	TOTAL GASTO ANUAL (€)
Equipamiento	424	0,00	0,00
Mantenimiento de parque	8.709	2,00	17.417,58
Mantenimiento de taludes y zonas verdes	47.268	0,50	23.634,11
Mantenimiento y limpieza viales, aceras y aparcamientos	18.584	1,60	29.734,40
Mantenimiento de cauce fluvial	4.092	0,00	0,00
Gastos de alumbrado	154.300	0,10	15.430,00
Mantenimiento de la red de pluviales	154.300	0,10	15.430,00
			101.646,09

Parkea kontserbatzeko urteko gastua 17.417 eurokoa izango zela kalkulatu zen, gastu hori nabarmen jatziko da orain jasotako hiritartze lanekin eta 5000 euro inguru estimatzen da, eta, egikaritzen denetik, udalek egingo dute.

Gainerako gastuak , kontserbazio-erakundeari dagozkio indarrean dagoen bitartean.

Kontserbazio planak kontserbazio erakundea sortzerakoan egoki zehaztu beharko ditu ondorengo lanak: Argiteria. Kale garbiketa. Lorezaintza. Euri uren sarea.

Euri uren saneamendu (hidrozikloi 6 hilabeteko txupioa behar du.)

Dena den, hasierako onarpena jaso behar duen agiri honetan horiek ez dira zehaztu behar.

6- Azterketa luminikoa egitea, aurretik, erabiltzaile eta urbanizazio elementuaren arabeko diseinua eginda.

Proiektuak baldintza betetzen du.

7- Aztertu eta arrazoitzea parkean ahalbidetu daitezkeen drainatze iraunkorreko teknikak, zeinak solidoen bereizgailu hidrozikloi sistema ordezkatu dezaketen.

Drainatze iraunkorreko sistemen azterketarako 4. eranskineko 4. atalari egiten diote erreferentzia, bi sistemak osagarriak dira, ez elkarren ordezko.

Bestalde, isuri aurretik suspentsioko solidoak mugatzeko betebeharra Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren 48.3, 50.6 artikuluan ezarrita dago, eta, beraz, ez jartzeak administrazio hidraulikoen txosten negatiboa eragingo lukeela argudiatzen dute. Arrazoiketa ontzat ematen da.

8- Mendi-hegalen, bideetako ezpondaren eta gainerako gainazalen geometriaren konformazioa diseinatzea.

Proiektuak baldintza betetzen du.



9- Herrien eta industrialdearen artean mugikortasun iraunkorra ahalbidetzeko, eremurako irteera-sarrerak aztertzea genero irizpideak aintzakotzat hartuta.

Eremutik kanpo dagoenez, azterketa ez egitea onartu da.

10- Parkea erabilgarri izan dadin zein erabiltzaileri zuzendu behar zaion hausnarketa jasotzea.

Proiektuak industrialde bat urbanizatu nahi duela eta parkerako aurreikusitako egokitzapena nahikotzat jotzen dutela adierazten dute. Gainerako diseinua eta exekuzioa Ibarako eta Tolosako Udalek garatu beharko dute.

11- Lorezaintza.

Industriagunean zuhaitzak landatzea aurreikusita dago, zehazki 12.2 planoan, non industrialdean egin beharreko landaketa eta langarreztatze guztia grafiatu den. Azken hori proiektu hau barne hartzen duen ingurumen-dokumentuan ere jasota dago.

Jarduketa Programaren onespenean eskatutakoa betetzen du, Acer saccharinum zuhaitzak kendu eta diametro txikiagokoak jarriko dira, hortaz, zuhaitzen tipologiari eta diametroei dagokienez, adierazitako jarraibideen arabera zuzenketak egin dira.

Gainera, Lorezaintzako mantentze-lanak egiteko bideen zoruak, parkea zeharkatzen dituenak, hormigoizkoak eta zagorraz egindakoak dira eta mantentze-lanetan ibilgailuz igarotzea ahalbidetzen dute.

2.2. AZPIEGITURAK

12- Ur-hornidura eta ur beltzen sarea (Gipuzkoako Urak)

Gipuzkoako Ur Kontsortzioari proiektua igorri zion Tolosako udalak, eta hark ur-azpiegiturei buruzko txostena bidali zion Udalari 2025eko martxoaren 19an. Bertan, egindako zehaztapenak proiektuan aldatzea eskatzen da.

- Ur hornidura:

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hurrengoa dio:

“Proiektuak kanalizazio berrien instalakuntza, egungo hornidura sarera konexioak eta hargune berrien aurreikuspena planteatzen du.

Gipuzkoako Urak-ek proiektuko soluzioa aztertu ondoren hurrengoa azaltzen du:

- Gipuzkoako Urak-eko Behe Sareko Araudi Teknikoan zehazten denaren arabera, puntu baxuak kutxatila bereizi baten bidez sare fekalera konektatu beharko dira eta 8.2.1 planoan, beraz, adierazitako puntu baxuetan aurretiko kutxatila horiek gehitu beharko lirateke, F1.10.2 eta F1.7.2.9 putzuekin konektatu aurretik.

- Zanga guztietan ur hornidura sarearen seinalizazio-zinta bikoitza instalatu beharko da, Gipuzkoako Urak Behe Sareko Araudi Teknikoan zehaztutakoaren arabera, eta 8.2.2



planoan dauden xehetasunak, beraz, egokitu beharko dira.”

Hortaz, proiektuak adierazitako zuzenketak jaso beharko ditu.

- Behe saneamendua:

Gipuzkoako Ur Kontsортzioak hurrengo dio:

“Proiektuak saneamendu sare bereizia instalatzea proiektatzen du obra-eremu osoan zehar eta egungo ur zikinen sarera konektatzea. Gipuzkoako Urak-ek proiektuko soluzioa aztertu ondoren hurrengo azaltzen du (ikus erantsitako krokisa):

- Saneamendu-sare existenteari eragiteko arriskua txikia dela aurreikusten bada ere, obrak egiten diren bitartean arrisku hori areagotu dezakeen edozein aldaketa jakinarazi beharko da.

- 8.3.1 planoan adierazitakoaren arabera, proiektatutako saneamendu-sare orokor berriak lur publikotik eta irisgarritik igarotzen dira.

- 8.3.2 planoan adierazitakoaren arabera, proiektatutako putzuen barne-neurriek ez dute betetzen Gipuzkoako Urak-ek Behe Sareko Araudi Teknikoan zehaztutakoa, eta, beraz, onargarriak diren neurrietara egokitu beharko dira (ikus erantsitako dimentsio-aula).

A.5.3. NEURRIAK

Kontrol putzuen neurriak faktore hauen arabera egongo dira: putzuaren sakonera, ero anbidetxertatuaren diametroa eta hartzen dituen hargune kopurua. Ondorengo taulan, kasurik ohikoenak agertzen dira, laburtuta:

DIAMETRO TXERTATUA	HARGUNE KOPURUA	H ≤ 1m	1m ≤ H ≤ 2m	H ≥ 2m.
300 - 400	≤ 3	80 cm	100 cm.	120 cm.
	> 3			
